

Irailaren 12ko 40/2006 FORU DEKRETUA, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.....	2
I. KAPITULUA.....	2
NORTASUNA EGIAZTATZEA FORU ALDUNDIAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO MODU EZBERDINETAN ..	2
2. artikulua. Nortasuna egiaztatze modua Foru Aldundiarekiko harremanetan.	2
3. artikulua. Pasahitza esleitzea, Foru Aldundiarekin telefono bidez edo elektronika, informatika edo telematika bidez harremanetan jartzeko.	4
4. artikulua. Sinadura elektroniko baimendua erabiltzea Foru Aldundiarekiko harremanetan.	6
5. artikulua. Pasahitza eta sinadura elektroniko baimendua erabiltzeak dakartzan erantzukizunak. .	7
II. KAPITULUA ORDEZKARITZA.....	7
6. artikulua. Legezko ordezkaritza Foru Aldundiaren aurrean.	7
7. artikulua. Legezko ordezkaritza egiaztatzea.....	8
8. artikulua. Borondatezko ordezkaritza Foru Aldundiaren aurrean.....	8
9. artikulua. Borondatezko ordezkaritza-ahala egiaztatzea.....	8
10. artikulua. Foru Aldundiko Ordezkarien Erroldak.....	8
11. artikulua. Erroldetan izen-emateko prozedura.....	9
XEDAPEN GEHIGARRIAK	10
Lehena. Sinadura elektroniko baimendua nahitaez erabili beharra fiskalitaterako eta finantzatarako departamentuaren telematika bidezko harremanetan	10
Bigarrena. Pasahitzari buruzko araudiaren indarraldia.....	10
Hirugarrena. Bazterketak.	10
Laugarrena. Ordezkari boluntarioen erroldan izen-emandakoen datuak lagatzea.	11
Bosgarrena. Datu pertsonalen babesa.....	11
XEDAPEN IRAGANKORRA	11
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	12
AZKEN XEDAPENA	12

Azken urteotan, administrazioarekin harremanetan izateko moduetan aldaketa ikaragarri handia gertatu da teknologia berriak sartzearen ondorioz, baina horretarako, ahalik eta gehien bermatu behar dira datuen segurtasuna eta isilekotasuna. Horregatik, etengabekoak dira arlo horretako arauetan egin behar diren aldaketak.

Hala, 107/2003 Foru Dekretuaren bidez, nortasunaren eta ordezkartzaren egiaztapena arautu zen zerga administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan inguruan. Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta herritarren arteko internet bidezko harremanak arautzen dituen 2004ko maiatzaren 11ko

41/2004 Foru Dekretua onartu zen, bai eta herritarrei laguntza eta zerbitzua ematearen arloan Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzuak arautzen dituen 2005eko apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretua ere.

Une honetan egoera egokia dugu nortasuna eta ordezkaritza egiaztatze bideak arautzeko Foru Aldundiarentzat zein horren menpeko erakunde autonomiadunentzat nahiz beste erakunde publikoentzat ere, zertarako-eta herritarrekiko harremanei segurtasuna emateko, herritarrek aukeratzen duten komunikabidea edozein delarik ere.

Horregatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde-antolaketa, Gobernu eta Administrazioaren 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauko 67.1.a) artikuluari dagokionez 31.1.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Administrazioaren Kalitaterako eta Fiskalitaterako eta Finantzatarako departamentuetako diputatu titularrek batera proposatuta, Batzorde Juridiko Aholkulariari entzun ondoren eta aurretik Diputatuen Kontseiluak aipaturiko eguneko bileran eztabaidatu eta onespena emanda,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru Dekretu honek nortasuna eta ordezkaritza egiaztatze moduak arautzen ditu herritarrek Foru Aldundiko departamentuekin dituzten harremanetan, baita haren menpeko erakunde autonomiadunekin nahiz beste erakunde publikoekin dituzten harremanetan ere botere publikoa erabiltzen dutenean.
2. Foru Dekretu honen ondorioetarako, Foru Aldundiari buruzko aipamenak aurreko atalean aipatzen diren erakunde autonomiadunen eta erakunde publikoen gainekoak ere badira.

I. Kapitula

Nortasuna egiaztatzea foru aldundiarekin harremanetan jartzeko modu ezberdinetan

2. artikulua. Nortasuna egiaztatze modua Foru Aldundiarekiko harremanetan.¹

1. Honako kasu hauetan joko da egiaztatutzat Foru Aldundiarekin harremanak dituzten pertsonen nortasuna:
 - a) Herritarra bera agertzen denean administrazioan: Nortasun agiria edo pasaporte aurkeztuta; jatorrizko estatuan onartutako identifikazio agiria Europako Batasuneko estatu etako kideentzat, edo Atzerriarra Identifikatzeko Zenbakia duen agiria gainerako kasuetan. Halaber, nortasuna egiaztatutzat joko

¹ Artikulu hau 2008ko ekainaren 24ko 61/2008 FORU DEKRETUaren artikulua bakarraren bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jartzen da indarrean (2008-06-25ko GAO)

da norbera agertuta izaten diren harremanetan, ondorio horietarako zuzenbidean onartutako beste edozein agiri aurkezten bada.

b) Idatzizko harremanen kasuan: Identifikatzeko datuak jakinarazita eta eskuz egindako sinadura ipinita.

c) Telefono bidezko harremanetan:

- Esleituriko pasahitza jakinarazita, Foru Dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Sinadura elektronikoko baimendua dakarren euskarrian inprimaturiko kodea adierazita.

2. Halaber, elektronika, informatika eta telematika bidezko harremanetan, honako kasu hauetan joko da egiaztatutzat Foru Aldundiarekin harremanak dituzten pertsonen nortasuna:

a) Esleituriko pasahitza erabilita, Foru Dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Sinadura elektronikoko baimendua, sinadura elektronikokoari buruzko 2003ko abenduaren 19ko 59/2003 Legean aurreikusten dena, erabilita.

c) Sinadura elektronikoko bestelako sistema batzuk erabilita, hala nola, interesatuak eta Foru Aldundiak, biek, ezagutzen duten informazioa emanez, edo kriptografikoak ez diren beste sistema batzuk, kasuan kasuan ezarritako baldintza eta egoeretan.

3. Departamentu bakoitzari dagokio, foru diputatuaren foru agindu bidez, artikuluko honetako 2.c) atalean aipatutako sistemak ezartzea, erabaki hori eragindako datuak eta interesak kontuan hartuta arazoituz. Sistema horiek aukeratzerakoan bi printzipio hauek errespetatu beharko ditu bereziki: segurua izatea sistema horien ezarpena eta erabilera, eta neurrikoa galdatutako neurriei eta bermeei dagokienez, sistema horiek erabilita nortasuna egiaztatu daitekeen izapide edo jarduketaren administratiboaren izaera eta inguruabarren aldean.

Aipatu foru aginduan behar adina arazoituko da zergatik ezartzen den sistema, bere ezaugarri teknikoak zehaztuko dira, baita zer egoera eta baldintzetan erabili daitekeen ere, eremua, izapide eta jarduketak espresuki aipatuz.

Ezartzen den sistema hori departamentuak bidali edo erakutsitako informazioa, proposamenak edo zirriborroak berresteko ere erabili badaiteke, beharrezko neurriak hartu beharko dira, bidali edo erakutsitako informazio, proposamen edo zirriborro horren osotasuna eta ez uko egitea bermatzearren. Kasu horretan dagokion foru aginduak berariaz jaso behar du nortasuna egiaztatzeke ezartzen duen sistemaren erabilera gehigarri hau.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek, foru diputatuaren foru agindu bidez, eurekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa ezartzea erabaki ahal izango dute, atal honetan aurreikusitako nortasuna egiaztatzeke edozein sistema erabiliz ala horietako bat edo batzuk bakarrik erabiliz. Obligazio hori hartzaileak kontuan hartuta ezarri ahal izango dute, bere harreman guztietarako edo jakin batzuetarako, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, beren lanbideagatik edo behar bezala egiaztatutako beste arrazoi batengatik

beharrezko bitarteko teknologikoak, nortasuna egiaztatzeko galdatutako sistema barne, eskura dituzten pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak badira.

5. Edonola ere, pertsona fisikoek nortasun agiriari erantsitako sinadura elektronikoko sistemak erabili ahal izango dituzte.

3. artikulua. Pasahitza esleitzea, Foru Aldundiarekin telefono bidez edo elektronikoa, informatika edo telematika bidez harremanetan jartzeko.

1. Interesa dutenek Pasahitza esleitzeko eska dezakete Foru Aldundiarekin telefono edo telematika bidez harremanak izateko, eta horretarako, dagokion eskabide-eredua bete beharko dute.

Foru Aldundiaren aurrean nortasuna egiaztatzeko baliozko bidea denez gero, pasahitza emateak interesa duenaren beren beregiko baimena dakar Foru Aldundiko fitxategien arteko datuak trukatzeko, zertarako-eta pertsona behar bezala identifikatzeko.

2. Aurreko puntuan aipatzen den eskabidea honelaxe aurkez daiteke Foru Aldundiaren aurrean:

— Eskabidea telematikaren bidez igortzea, aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakundeetako atarian edo atarietan dagoen eskabide-formularioa beteta.

Hala denean, aurre-erregistro gisa gordeko da eskabidea. Baldin eta interesa duenak ez badu tramitazioa amaitzen Foru Aldundian bertan agertuta eta, hala denean, dokumentazio egokia aurkeztuta, aurre-erregistroa ezeztatu eta eskabidea iraungi egingo da eskabidea bidali eta 30 laneguneko epean.

— Interesa duena Aldundian agertzea, horretarako jarriko diren bulegoetan inprimakia beteta, herritarren arretarako bulegoetan alegia. Aukera hori onartuko da pasahitzaren telefono bidezko zerbitzua abian jartzen denetik.

3. Ondoren, berak aukeratzen duen herritarren arretarako bulegora jo beharko du hari eskainitako bulegoen artean, nortasuna eta beharrezkotzat jotzen den beste edozein inguruabar egiaztatzeko.

Eskatzaileak ez du zertan bulegoan agertu eskabidean datorren haren sinadura notarioaren aurrean legeztatu bada eta eskabide horretan bertan hirugarren bati baimena ematen bazaio beste pertsona baten pasahitza jasotzeko, baina Foru Aldundia salbuetsita dago eskabidea ematearen gaineko edozein erantzukizunetatik.

Agiri hauek aurkeztu beharko ditu interesa duenak Foru Aldundira badator:

a) Pertsona fisikoa bada, honako Foru Dekretu honetako 2 a) artikuluan aipatzen den nortasuna egiaztatzeko agiri originala eta kopia, egiaztatua izan dadin.

Baldin eta pasahitza eskatzen bada adingabe baten edo epailearen arabera ezindua den norbaiten izenean, legezko ordezkariak adingabearen edo ezinduarien eta beraren nortasuna egiaztatzeko agiri originala eta kopia aurkeztuko du, egiaztatua izan dadin, baita legezko ordezkariak egiaztatzen duen agiriaren originala eta kopia ere, egiaztatua izan dadin.

b) Pertsona juridikoa bada, legezko ordezkariaren alde emango da soilik pasahitza, eta honako hauek aurkeztu beharko dira:

— Nortasuna egiaztatzen duen agiri originala eta kopia, egiaztatua izateko, Foru Dekretu honen 2 a) artikuluan ezarritakorekin bat etorritz.

— Hark ordezkatzeko duen erakundearen Identifikazio Fiskaleko Txartel originala eta kopia, egiaztatua izan dadin.

— Legezko ordezkaria izatea egiaztatzen duen agiri originala eta kopia, egiaztatua izateko, eta Legezko Ordezkariei Erroldan izen-emateko eskabide sinatua.

Pertsona juridiko bakoitzak baliozko eta indarreko pasahitza bakarra izango du.

c) Pasahitza adingabearen edo ezinduari izenean edo erakunde baten izenean emateko, Foru Dekretu honetako 10. artikuluan aipaturiko Legezko Ordezkariei Erroldan egon behar du inskribatuta horien legezko ordezkariak. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa izango legezko ordezkariak horren egiaztagiria aurkezteko legezko ordezkaria lehenagotik Errolda horretan inskribatuta badago.

4. Herritarrei laguntzeko pertsonalak egiaztapenak egin beharko ditu, eta horien artean, Foru Aldundiaren edozein sistema informatiko, aplikazio edo fitxategitan erregistratuta dauden identifikazio datuen erkaketa egongo da; izan ere, sistema horretan sar daiteke interesa duena pasahitzaren bidez. Erkaketa horren helburua erregistraturiko identifikazio-datuak bat datozela ziurtatzea da, nahikoa berme duen atzipena izan dadin. Hortaz, datuak bat ez badatoz, beharrezko aldaketak bultzatuko dira.

Egiaztapen egokiak egin ondoren, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren foru aginduaren bidez onetsiko den dokumentua sinatu beharko du eskatzaileak. Dokumentu horrek identifikazio zenbakia izango du, baita pasahitza eskuratzeak dakartzan eskubideen eta betebeharren zerrenda bat ere.

Agiri horrekin batera, egiaztapen pasahitza eta baieztapen pasahitza barruan izango dituen gutunazal itxia emango da.

Titularrak egiaztapen pasahitza aldatu beharko du hura erabiltzen duen lehen aldiaren; horretarako, egiaztapen pasahitza eskuratu eta 30 egun naturaleko epean egin behar da aldaketa. Epe hori igarota hura erabiltzen ez bada, esleituriko pasahitza baliorik gabe geldituko da.

5. Halaber, pasahitza deuseztatu eta baliogabetu egingo da honako kasu hauetan:

a) Titularrak edo legezko interesa duen hirugarren batek eskatzen duenean.

b) Pertsona fisiko titularra hiltzen denean edo ezindua denean edo desagertzen denean. Adingabea edo epailearen arabera ezindua den norbaiten izenean ematen bada pasahitza, legezko ordezkaria hiltzen denean.

c) Pasahitza eskuratzen denean edo hura luzatzeko eta emateko egiaztaturiko inguruabarrak edo ordezkariak ahalmenari buruzko inguruabarrak aldatzen direnean, halako moldean non inguruabarrok dagoeneko ez baitatoz bat errealitatearekin.

d) Pasahitza esleitzen denetik 3 urte igarotzen direnean.

e) Esleituriko pasahitza galtzen edo ostua denean edo hura behar bezala erabiltzen ez den susmoa denean.

f) Administrazio ebazpena ematen denean; zioak eman behar dira ebazpenean.

c) eta e) kasuetan, pertsona fisiko titullarrak ezeztatzeke eskatu beharko du, edo bestela legezko ordezkariak, adingabearen edo epailearen arabera ezindua den pertsonaren izenean emandako bada. Eskabidea egiten den une beretik izango da eraginkorra. Horretarako, nortasuna egiaztatu beharko du Foru Dekretu honetako 2 a) artikuluan zenbatu diren agirietatik edozein aurkeztuta, eta eskabidea telefonoz egin bada, zenbait datu jakinarazi behar dira.

Titullarrak pasahitzaren baliozkotasuna galtzea dakarren edozein arrazoi Foru Aldundiari jakinarazteko duen betebeharra kontuan izan gabe, Foru Aldundiak berekin gordetzen du pasahitza baliorik gabeko uzteko eskubidea, behin eta berriz okerreko atzipenak egiten badira edo behar bezala erabiltzen ote den edo nortasuna edo ordezkaritzaaren egiaztagirien indarraldiaz susmo arrazoituak edo bestelako zioak badaude. Ezeztapena egiteko, zioak emanda dituen ebazpena behar da, eta baliogabetu den pasahitzaren titullarrari jakinarazi behar zaio ebazpena.

Horretarako, pasahitza ezeztatzea dakarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan ezagutzen den edozein inguruabarren berri emango zaio Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari.

6. Nortasuna egiaztatzeke ez ezik, pasahitza erabili ahal izango da Foru Aldundiak bidali edo erakutsitako informazioa, proposamenak edo zirriborroak berresteko ere, baina betiere bidali edo erakutsitako informazio, proposamen edo zirriborro horren osotasuna eta ez uko egitea bermatzearen beharrezko neurriak hartzen diren neurrian.²

4. artikulua. Sinadura elektronikoko baimendua erabiltzea Foru Aldundiarekiko harremanetan.³

1. Edozeinek eska diezaioke Foru Aldundiari foru erakundearekiko harremanak sinadura elektronikoko baimenduaren bidez izateko.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan onartu egiten dira IZENPE, SA eta AC CAMERFIRMA, SA ziurtapen zerbitzuen emaileek emandako sinadura elektronikoko baimenduak, onartu ere, Diputatuen Kontseiluak onartutako baldintzetan.

² Apartatu hau 2008ko ekainaren 24ko 61/2008 FORU DEKRETUAren artikuluko bakarraren bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jartzen da indarrean (2008-06-25ko GAO)

³ Artikulu hau 2008ko ekainaren 24ko 61/2008 FORU DEKRETUAren artikuluko bakarraren hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jartzen da indarrean (2008-06-25ko GAO)

Bestelako ziurtapen zerbitzuen emaileek emandako sinadura elektroniko baimendua.

5. artikulua. Pasahitza eta sinadura elektroniko baimendua erabiltzeak dakartzan erantzukizunak.

Gipuzkoako Foru Aldundia askatu egiten da pasahitza edo sinadura elektroniko baimendua iruzurrez erabiltzearen ondoriozko edozein erantzukizunetatik, pasahitza eteteko edo ezeztatze eskabidea jasotzen ez den bitartean.

Pasahitzaren edo sinadura elektroniko baimenduaren titularrak, hura ematen den unetik aurrera, bere gain hartzen du pasahitza edo sinadura sortzeko eta aktibatze datuak eta sinadura ezarri den euskarri tekniko zaintzeko erantzukizun eksklusiboa, baita esleituriko sinadura edo pasahitza behar ez bezala edo zabarkeriaz erabiltzearen ondorioen erantzukizuna ere.

Pasahitza edo, hala denean, sinadura elektroniko baimendua adingabe baten edo epailearen arabera ezindua den pertsona baten izenean eman bada, pasahitza eskatu duen legezko ordezkariarena izango da erantzukizuna.

Pertsona juridikoen kasuan, pasahitza edo sinadura eskatu duena izango da hura zaintzeko arduraduna, eta pertsona juridikoak egindakotzat joko dira sinadura edo pasahitza erabili den jarduketara oro. Behar ez bezala erabiltzen badira, jarduera horien ondorioen erantzukizuna pertsona fisiko eskatzaileari egokituko zaizkio. Eskatzaileak, nolanahi ere, pasahitza edo sinadura behar ez bezala erabili duenaren kontra egin dezake.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3. artikuluan aipatzen diren eta nortasun juridikorik ez duten erakundeei emandako sinadura elektroniko baimendua bada, eskatzailea izango da sinadura aktibatze eta sortzeko datuak eta sinaduraren euskarria zaintzeko arduraduna.

II. Kapitulua

Ordezkaritza

6. artikulua. Legezko ordezkaritza Foru Aldundiaren aurrean.

1. Legezko ordezkariak jardungo dute jarduteko ahalmenik ez duten pertsonen izenean.

2. Organoen titulartasuna duten pertsonak jardungo dute pertsona juridikoen izenean jarduerak gertatzen diren unean, legezko xedapenez edo modu baliagarrian harturiko erabakiaren bidez pertsona juridikoen ordezkaritza duten organoetako pertsonak alegia.

3. Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. atalean aipatzen diren erakundeen izenean, ordezkaritza duenak jardungo du ordezkari gisa, betiere modu sinesgarrian egiaztatzen bada ordezkaria izatea. Ordezkaririk izendatu ezik, itxuraz kudeaketaz edo zuzendaritza arduratzen dena izango da ordezkaria, eta horren ezean, edozein kide edo partaide.

7. artikulua. Legezko ordezkaritza egiaztatzea.

Legezko Ordezkaritza notarioaren sinaduraz legeztaturiko dokumentu pribatua edo dokumentu publikoa aurkeztuz egiaztatuko da, aipaturiko ahalordetza jasotzen duena. Horrela, 10. artikuluan aipatzen den Gipuzkoako Foru Aldundiko Legezko Ordezkarien Erroldan inskriba daiteke, ordezkaria Foru Aldundiarekin harremanetan jartzen den bakoitzean ordezkaria dela egiaztatzetik askatzeko.

8. artikulua. Borondatezko ordezkaritza Foru Aldundiaren aurrean.

1. Jarduteko ahalmena duten eskatzaileek ordezkari boluntarioaren bidez jardun dezakete Foru Aldundiaren aurrean; ordezkari horrekin egingo dira administrazio jarduerak, interesa duenak espresuki kontrakoa adierazten ez badu.

Jarduteko ahalmena duen edozeinek jardun dezake beste baten izenean Foru Aldundiaren aurrean.

2. Tramite hutserako egintzetan eta kudeaketetan, onartutzat joko da ordezkaria. Gainontzeko kasuetan, Foru Dekretu honetako 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egiaztatu beharko da ordezkaritza.

Ordezkaritza ez egiaztatzeak edo nahikoa ez egiaztatzeak ez du galaraziko kasuan kasuko egintza burututzat hartzea, betiere egiaztapena aurkezten bada edo akatsa konpontzen bada organo eskudunak eman beharreko hamar eguneko epearen barruan, edo epe luzeagoan epea luzatzea komeni denean.

9. artikulua. Borondatezko ordezkaritza-ahala egiaztatzea.

1. Tramite hutserako egintzetan eta kudeaketetan izan ezik, Foru Aldundiaren aurrean hirugarrenen izenean jarduten dutenek ordezkariak izateko ahalmena egiaztatu beharko dute honako hauen bidez:

— Notarioaren sinaduraz legeztaturiko dokumentu pribatua edo dokumentu publikoa aurkeztuta, aipaturiko ahalordetza ezarri duena, edo bestela, ordezturiko pertsona bera agertuta administrazio organo eskudunaren aurrean.

— 10. artikuluan aipatzen diren ordezkari Boluntarioen Erroldetako batean behar bezala inskribatuta egonda.

Ordezkarri Boluntarioen Erroldetan izen-emateak askatu egiten du izena emanda duena ordezkaria izateko ahalmena egiaztatzetik departamentuaren, erakunde autonomiadunaren edo erakunde publikoaren aurrean interesa duenaren izenean administrazioarekin harremanetan jartzen den bakoitzean, Erroldan baja ematen ez zaion bitartean, betiere harreman horiek inskribaturiko ordezkariaren eremuaren barruan badaude.

2. Beharrezkoa da ordezkari Boluntarioen Erroldan izen-ematea departamentuarekin, erakunde autonomiadunarekin edo erakunde publikoaren telefono edo telematika bidezko harremanak izateko hirugarrenen izenean.

10. artikulua. Foru Aldundiko Ordezkarien Erroldak.

1. Foru Aldundiak «Legezko Ordezkarien Errolda» izango du, Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuari atxikia eta interesa dutenek egindako baliozko

izen-emateak bilduko dituen, betiere Foru Dekretu honen eta hura garatzeko xedapenen eskakizunak betetzen badira.

2. Departamentu, erakunde autonomiadun edo erakunde publiko bakoitzak ordezkari Boluntarioen Errolda bat jar dezake, eta bertan inskribatu ahal izango dira, departamentu eta erakunde horien aurrean haien izenean jarduteko interesa dutenek baimendutako pertsonak.

3. Organo eskudunak Errolda bakoitzeko izen-emateari buruzko zehaztasunak arautuko ditu, hurrengo artikuluan ezarritako oinarrizko arauak errespetatuz nolanahi ere.

11. artikulua. Erroldetan izen-emateko prozedura.

1. Departamentuan, erakunde autonomiadun edo kasuan kasuko erakunde publikoan jarritako ordezkari Boluntarioen Erroldan alta, aldaketa edo baja eskatzeko erabiliko den eredu normalizatua onetsiko du organo eskudunak. Halaber, eredu hori aurkezteko onarturiko sistemak eta Erroldan izen-emateko eskakizunak ere onetsiko ditu.

2. Legezko ordezkartzaren kasuetan, eredu normalizatua aurkeztu beharko da, notarioak legeztatze emandako sinadura duen dokumentu pribatu edo publiko originalarekin edo kopiarekin batera. Azken kasu honetan, kopia behar bezala egiaztatuta.

3. Borondatezko ordezkartzaren kasuetan, berriz, eredu normalizatua aurkeztuko da, honako hauek osatuta aukeran:

a) Notarioak legeztatze emandako sinadura duen dokumentu pribatu edo publiko originala edo kopia, behar bezala egiaztatuta; bertan ezarriko da emandako ahalmena.

b) Interesa duena funtzionario eskudunaren aurrean agertzea, haren kargua dela eta.

c) Ordezkapena sinesgarri egiteko zuzenbidean onartutako bestelako edozein bide erabilia.

4. Foru Aldundiak berekin gordetzen du erregistraturiko izen-emateak ezeztatze eskubidea baldin eta akatsak gertatzen badira izena ematean, egiaztagirien indarraldiaz edo baliozkotasunaz susmo arrazoituak edo bestelako arrazoiak badaude. Ezeztapena egiteko zioak emanda dituen ebazpena behar da, eta ordeztuari zein ordezkariari jakinaraziko zaio ezeztapena.

Halaber, izen-emateak espresuki berresteko eska dezake, indarrean eta eguneratuta daudela ziurtatzeko, eta baja emango zaie berresten ez direnei. Horretarako, Foru Aldundiak berekin gordetzen du, egoki irizten dion aldizkakotasunaz, ordezkaturiko pertsonaren baimena berritua izan dadin eskatzeko, edo egiaztageria berriz aurkezteko eskatzeko eskubidea.

5. Foru Aldundiak espresuki ebatzi beharko ditu ordezkarien Erroldan alta edo baja emateko edo aldaketa egiteko eskaerak hiru hilabeteko epean, eta onartutzat joko dira epe horretan beren beregiko ebazpenik eman ezik.

6. Interesa duenak, jarduteko nortasuna egiaztatzeko modu gisa, ordezkarien Erroldako izena erabil dezake. Horretarako, Foru Aldundiarekin harremanetan izateko ordezkariak aukeratzen duen edozein bide –administrazioan agertuta edo telefono edo telematika bidez– erkatu beharko da, baimenak eta mugak inskribaturiko ordezkartzaren helburuarekin eta norainokoarekin bat datozela ziurtatzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Sinadura elektroniko baimendua nahitaez erabili beharra fiskalitateko eta finantzetarako departamentuaren telematika bidezko harremanetan

Foru Dekretu honen 4.1. artikuluan xedatu denari kalterik egin gabe, honako hauek izan behar dituzte telematika bidezko harremanak zergen administrazioarekin, betiere sinadura elektroniko baimendua erabiliz:

a) «Profesional»tzat hartutako pertsonak.

«Profesional»tzat joko da honako hauek betetzen dituen pertsona edo erakunde oro:

— Zergen arloan kudeaketa zerbitzuak sarritan ematea eta alta emanda egotea Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren testu bategina onetsi duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen Eranskinaren Lehen Ataleko 841, 842, 847 taldeetan edo 849.7 epigrafean edo Bigarren Ataleko 722, 726 edo 798 taldeetan edo 73 eta 74 multzoetan.

— Ordezkaritza-eredu egokia behar bezala beteta aurkeztea, betiere inguruabar hori adierazita.

b) Gipuzkoako Foru Aldundian aurkezturiko 190 ereduan –aurreko ekitaldiari dagokion ereduan– gutxienez 25 subjektuen izenak jarri dituzten eta zerga obligazioak bete behar dituzten aitorleak. Subjektu horiek zerrendan agertzen dira, lan etekinen ordainketak egin izanagatik zerga aitorpen guztiak aurkezteari dagokionez, hain zuzen ere une bakoitzeko indarreko araudiarekin bat etorritik telematika bidez aurkeztu daitezkeen zerga aitorpenak. Guztia, indarrean jarraitzen duen Fiskalitate eta Finantzetarako Foru Diputatuak emandako urriaren 28ko 1199/2004 Foru Aginduarekin bat etorritik.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundeak, kreditu-eragiketarako espedienteak tramitatzeko, indarrean jarraitzen duen apirilak 27ko 458/2005 Foru Aginduak xedatu bezala.

Bigarrena. Pasahitzari buruzko araudiaren indarraldia.

3. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, indarrekoa eta aplikagarria da Zergen Administrazioarekin harremanetan izateko pasahitzaren telematika bidezko eskabide-formularioa onetsi duen martxoaren 26ko 285/2004 Foru Agindua, Foru Dekretu honetan ezarritakoaren kontra ez dagoen guztiari dagokionez, baita pasahitza eskuratzearen ondoriozko eskubideen eta betebeharren agiria ere.

Hirugarrena. Bazterketak.

Baztertuta gelditzen dira Foru Dekretu honetako aurreikuspenetatik abala ematen duten erakunde edo aseguru-etxeetako ordezkariak, abalak ematearen edo kauzio-aseguruak sinatzearen ondorioetarako.

Laugarrena. Ordezkari boluntarioen erroldan izen-emandakoen datuak lagatzea.

Foru Aldundiko edozein departamentuk, eta edozein erakunde autonomiadun edota erakunde publikok irekitako Ordezkari Boluntarioen Erroldan izena emanez gero, biek –ordezkariak eta ordezkatuak– baimena ematen dute kasuan kasuko eredu normalizatuan idatzitako identifikazio datuak –helbidearenak eta harremanetakoak– Foru Aldundiko beste atalei lagatzeko. Beren Ordezkari Boluntarioen Errolda eratua duten beste departamentu edota horien mendeko erakunde autonomo eta ente publikoen egitasmoetan ordezkaritza horretaz baliatu ahal izateko bakarrik egiten da lagapena, eta ez beste edonolako helbururako. Foru dekretu honen 11. artikuluan aipatzen den eredu normalizatuak zehazki jasoko du baimen hori.

Bosgarrena. Datu pertsonalen babesa.

1. Ordezkarien Errolda kudeatzen duen departamentu, erakunde autonomiadun edo erakunde publiko bakoitzari dagokio Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedaturikoa betetzea, eta bereziki, fitxategia sortzeari eta fitxategia Datuak Babesteko Erregistroari jakinarazteari dagokionez.
2. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentua izango da Legezko Ordezkarien Erroldako fitxategiaren arduraduna.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Abenduaren 30eko 107/2003 Foru Dekretuaren itzalpean emandako pasahitz guztiak erabili ahal izango dira Foru Aldundiko beste departamentuen, erakunde autonomiadunen eta erakunde publikoen eremuan, eta hartzaileak eskatzen dituen betekizun eta baldintzak beteko dira hala denean. Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak ezeztatu egingo ditu ordura arte ordezkari boluntarioek eskatuta pertsona juridikoen izenean Departamentuak emandako pasahitzak, zeren eta pasahitza horiek emateko beharrezkoa izan baita zergen arloan soilik erabiltzea.
2. Honako Foru Dekretu hau indarrean sartzean abenduaren 30eko 107/2003 Foru Dekretuaren itzalpean sortutako Ordezkarien Erregistroan erregistratuta dauden ordezkari boluntario guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Legezko Ordezkarien Erroldan sartuko dira, dokumentu normalizatuan espresuki hala baimentzen denean. Gainerako kasu guztietan, beren beregiko baimen hori eskatuko zaie ordezkariei. Baimena berretsi ezik, baja emango zaie abenduaren 30eko 107/2003 Foru Dekretuaren itzalpean sortutako Ordezkarien Erregistroan, eta ordezkari boluntario gisa erregistratuko dira zerga ondorio guztietarako Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren Erroldan.
3. Honako Foru Dekretu hau indarrean sartzean abenduaren 30eko 107/2003 Foru Dekretuaren itzalpean sortutako ordezkarien Erroldan erregistratuta dauden ordezkari boluntario guztiek erregistratuta jarraituko dute Fiskalitaterako eta

Finantzetarako Departamentuaren ordezkari Boluntarioen Erroldan, ordura arte izan duten ahalmen bera izanik eta alta eskabiderik egin behar izan gabe.

4. Foru Dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak ez badira eta bertan ezarritako aurreikuspenak garatzen ez diren bitartean, indarrean jarraituko dute Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren eremuan abenduaren 30eko 107/2003 Foru Dekretua garatzeko urtarilaren 8ko 1/2004 eta irailaren 17ko 1047/2004 Foru Aginduek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egin dira Foru Dekretu honetan xedatu denaren kontra dauden eta lerrun bereko edo txikiagokoak diren xedapen guztiak, bereziki zergen administrazioaren aurreko nortasunaren eta ordezkaritzaren egiaztapena arautzen duen abenduaren 30eko 107/2003 Foru Dekretua.

AZKEN XEDAPENA

1. Foru Dekretu honek dakartzan eratxikipenak salbu utzita, ahalmena ematen zaio Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuari, pasahitzari eta Legezko ordezkaritzak Erroldan sartzeari buruzko aurreikuspenak aplikatzeko eta garatzeko bidezkoak diren xedapenak emateko.

Nolanahi ere, Kalitaterako Departamentuari dagozkio foru administrazioiko beharrezko zuzendaritza, kudeaketa eta koordinazioko eginkizunak nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzearekin lotutako gaietan, baldin eta korporazioaren erantzun edo jarduketa bateratua eta integratua behar badute.

2. Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *2008ko ekainaren 24ko 61/2008 FORU DEKRETUA, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua aldatzekoa (GAO 2004-06-17).*
 - Bere artikulua bakarrak 2. artikulua, 3. artikuluko 6. apartatua eta 4. artikulua aldatzen ditu.